

# Kostuen egiturak

- Kostu finkoak: Duela bi urte denda zen lokalaren alokairua ordaindu behar dugu, hilean 900€ kostatzen duen 130m<sup>2</sup>-ko lokala. La Florida kalean dago, eta bi biltegi ditu, non makinak izango ditugun batean, eta bestea mintegi bat bihurtuko dugun. Dendaren beste espazioa errezepzioa eta produktuak (eskarate barne) okupatuko dituzte.

Horrez gain, hasieran makinak erosi behar izango ditugu, txikleak lurretik garbitzeko, 11.400€ balio duena. Bestetik, 3D inprimatzaileak 800€ kostatzen dutenak, txiklearekin lan egin ahal baitute. Eta azkenik, Candytech enpresari txikleak prozesatzeko eta garbitzeko makina bat erosi diogu, 4.000€ eta 6.000€-en artean

- Kostu aldakorrak: Langileen soldatak. Lau langile izango gara pritzipioz
  1. Olatz, denda lan egingo duena.
  2. Zeina, erlazio publikoetan ekingo duena.
  3. Joseba, biltegian txikleak garbitzen dituzten makinekin arituko dena, eta behin hori bukatuta dendara pasako da Olatzi laguntzera.
  4. Mikel, gure diseinatzaile grafikoa izango dena, eta 3D inprimatzailearekin arituko dena .

Dena den, nahiz eta lan ezberdinak izan, ez ditugu desberdindu bakoitzaren soldatan, hau da; guztiok berdina irabaziko dugu, hasieran gutxienez. Zertan oinarrituko da soldata? Hilabetean irabazten dugun kantitatean, eta hori, zati 4 eginez, langile bakoitzari berdina emanez.

- Hedapen- ekonomia: Hasieran Gasteizen egongo gara, baina hazkunde nabarmen bat bagenu salmentei dagokionez, ez dugu alboratzen Euskadi osora hedatzearen aukera. Eta nork daki, agian penintsula osora etorkizun ez hain urrun batean.

